

2019
2020

IKASTETXEAREN URTEKO PLANA



AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	2
2. HELBURU OROKORRAK.....	4
2.1 HELBURUEN FORMULAZIOA.....	4
2.2 JARDUEREN PLANIFIKAZIOA	8
3. IRAKASKUNTZA -JARDUEREN PROGRAMA	19
3.1 OHIKO IRAKASKUNTZA -JARDUERAK	19
3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak	19
3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak	30
3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala	32
3.2. IRAKASKUNTZA-JARDUERA OSAGARRIEN PROGRAMA.	33
3.2.1. Haur hezkuntza.....	33
3.2.2. Lehen hezkuntza	35
4. ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMA	39
5. ESKOLAKO ZERBITZUAK.....	40
6. EKONOMIA-KUDEAKETARAKO PLANA.....	41
7. HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIO PLANA	42
8. IUP-REN GARAPENAREN ETA IKASTETXEAREN	
FUNTZIONAMENDUAREN JARRAIPENA	43
8.1. URTEKO PLANAREN GARAPENAREN JARRAIPENAREN PLANIFIKAZIOA	43
9. ERANSKINAK.....	44
9.1. IKASTETXEAREN PLAN ESPEZIFIKOAK.	44

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Esku artean duzuen 2019-20 ikasturteko plan honek, Kalitatezko Hezkuntza bermatzeko proposamenak biltzen ditu, hau da, gure ikasle guztiek ikas-prozesuan arrakasta izan dezaten elkarbizitza osasuntsu eta testuinguru euskaldun batean.

- **Helburuen aukeraketarako oinarri eta arrazoiak.**

2019-20 ikasturteko helburuak jartzeko gure eskola komunitateak dituen beharrak, asmoak eta nahiak kontutan hartu ditugu.

Honetarako, 2018-19ko memorian jasotako ekarpenak eta beste iturri hauek ere aintzat hartu ditugu:

- Emaidza akademikoak eta ikasleen promozionatzeko orain arte ditugun irizpideak zehaztu beharra.
 - 2018-19 ikasturtean egindako diagnostiko-ebaluazioa frogen emaitzak eta hauek oinarritzat hartuta egin beharreko hobekuntza plana.
 - Elkarbizitza osasuntsu baten apustua.
 - Administrazioak argitaratzen duen “Ebazpena”
 - Gurasoen ekarpenak
 - Informazio eta Komunikazio Teknologia berrietan aurrerapausoak eman beharra
 - Ikuskariak eta Berritzeguneko aholkulariak emandako argibideak.
- **Egiteko prozedura eta lan-metodologia.**

Goian aipatutako guztia aintzat hartuta eta talde eragile guztien proposamenak kontuan hartuz, Zuzendaritzak helburu batzuk planteatu ditu. Helburu hauek Batzorde Pedagogikoan partekatu, eztabaidatu eta adostu dira.

Klaustroari Plana azaldu ondoren, Ikastetxeko Organo Goreneko partaideei azalduko zaie, onar dezaten.

Onartzekotan Ikuskaritzari helaraziko zaio eta azkenik gure web orrian jarriko dugu Hezkuntza-Komunitateak eskura euki dezan.

	bai	ez	zer-nola
Klaustroa	X		Pedagogikan egindakoa eta zikloetatik jasotako ekarpenen laburpenari onarpena ematen dio.
Batzorde pedagogikoa	X		Proposamenak egin, zikloetako ekarpenak bildu, aztertu, eta aurrera eramatea nahi ditugun proiektuak gauzatzen lagundu.
Zikloetako taldeak	X		Beharrak eta hobekuntza proposamenak; Pedagogikako ekarpenak eta proposamenak aztertu, ekarpenak egin.
Mailetako taldeak	X		Egunerokotasunean gertatzen diren hainbat arazo aztertu, hausnartu eta proposamenak egin.
Proiektuen arduradunak	X		Proiektuen ekarpenak, proposamenak... Pedagogikara helarazi; hobekuntzak proposatu; beste ekintzekiko lotura bermatu.
Zikloetako koordinatzaileak	X		Egite prozesuan partaide zuzenak dira eta ziklo ezberdinen arteko zubi-lan egiten dute.
Lan-taldeak	X		Martxan jartzea nahi ditugun lanei eta proiektuei bultzadaxo bat ematen diete. Hainbat formakuntzetatik jasotako materiala, ideia eta abar eztabaidatzea eta klaustroan zabaltzea izango da haien egitekoa.
Ikasleriaren ordezkariak		X	
Familien ordezkariak (Guraso Elkartea)	x		Kontseiluaren bidez, Guraso Elkartearen bidez ekarpenak egiten dituzte. Zuzendaritza taldearekin behar beste aldiz elkartzen dira gure ikastxeko martxa ahalik eta onena izan dadin.
Admin. eta Zerbitzuen langileria	X		Kontseiluaren bidez eta egunerokotasunean.
Zuzendaritza taldea	X		Plangintza proposatu, koordinatu, proposamenak jaso, sintesiak eta ondorioak atera. Plana bultzatu.
Entrepresak-erakundeak		X	
Beste batzuk	X		

2. HELBURU OROKORRAK

2.1 Helburuen formulazioa

1 P.E.G. (PRESTAKUNTZA EKIMEN GLOBALA)

- Matematikarako eta zientzietarako konpetenziaren inguruan klaustroa formatu eta ikasitakoa geletan inplementatu.
- Hizkuntzen trataera integratua eta integrala landu eta horretarako Berritzeguneak eskaintzen duen formazioan parte hartu.
- Gaur egun hizkuntzaren inguruan dauzkagun erabaki eta irizpideak kontuan izanda Hizkuntza proiektua osatzen joan.

Gure ikastetxean ikasleengan matematikarako konpetentzia garatzeko gakoak zeintzu diren gaurkotze aldera formazioa jasotzea ezinbestekoa da. Horrela, egoera matematiko, prozesu, metodo, eduki...egokienei buruzko hausnarketa egitea garrantzitsua deritzogu eta honetarako gelan erabiltzeko material anitzen azterketa derrigorra da.

Bestalde hizkuntzen trataera integratua eta integralaren inguruko formazio saioak jasotzea garrantzitsua iruditzen zaigu, bertan baliabide ezberdin eta gelarako materialaren inguruko hausnarketa egitea hizkuntzetako irakasleen lan koordinatua bultzatuz. Hau egin ondoren, dagokion ikasleriarengan hizkuntzekiko konpetentzia garatzeko egokien eta arrakastatsuen izan daiteken erantzuna aztertu eta zehaztu Hizkuntza Proiektua osatuko dugu.

2 Helburuaren formulazioa (Ebaluazioa)

Ikasleek ebaluazio objetiborako duten eskubidea bermatzeko eta ebaluazio hezigarri baten alde hainbat prozedura, formakuntza eta behar diren pausoak ematea.

Ebaluazioa hezigarriak, ikaslea bere ikasketa-prozesuaren erantzulea izatea bilatzen du; berak bere lorpen eta hutsegiteak hautematea eta ulertzea eta zailtasunei aurre egiteko ahalegina izatea. Ebaluazioaren funtzio pedagogikoaren helburua ikasleak bere ikasketa-prozesua autorregulatzea da.

Irakasleak ikaslearen ikasketa-prozesuaren autorregulazioan hausnarketarako aukera emango duten uneak eta bitartekoak eskainiko ditu, hausnarketa horretan lagundu eta ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesuan hobetzeko irakasteko estrategiak egokituko ditu.

Hau guzti hau egin ahal izateko berritzeguneak eskainiko duen ebaluazio mintegian parte hartzea ezinbestekoa jotzen dugu, eta bertan jasotako guztia klaustrokideei zabaltzea adostasunetara heltzeko.

3 Helburuaren formulazioa (Elkarbizitza-Hezkidetzaz)

Ikastetxeak ikaskuntzarako eta garapen pertsonal eta sozialerako gune bilakatzea jakintzaren eta eskola-komunitateko kide guztien konpromezu partekatu etengabearen bidez, bizikidetzaz positiboa eta ustezko jazarpen egoeren aurrean zero tolerantzia duen inguruseguru bat eraikiko duena.

Berritzeguneak ikastetxeari behar duen aholkularitza eta material didaktikoa emango dizkigu. Ikastetxean elkarbizitza planaren baitan lehentasunezko lan-helburua izango den ekimen hau gauzatzeko. Hezkuntza ikuskaritzak prozesu osoaren ikuspena egingo du, eta ikastetxeari esku-hartzearen protokoloaren aholkularitza eta orientazioa eskainiko dizkigu.

Gure ikastetxean eta geletan giro on baten alde lan egin behar dugu, tratu ona eta besteekiko errespetua bultzatuz eta honen inguruan kontzientzia sortu.

4 Helburuaren formulazioa (Bikaintasuneruntz)

XXI. mendeko haurrei eta gizarteari erantzuna eman ahal izateko, Irakasleak/hezitzaileak askotariko estrategiaz eta metodologiaz jantzita egotea; horretarako behar den moduan formazioa jasotzea.

Norbere behar eta erritmoak errespetatzen dituen hezkuntza batengan sinisten dugu; hezkuntza osotasunean ulertzen duena; haurrari ikaskuntza, aurkikuntza eta sormena bultzatzen diona; izaeraren dimentsio osoa kontuan hartzen duena; berdintasunaren ildotik, komunitate osoaren arauak eta mugak markatzen eta defendatzen duena; komunitatean oinarritua.

Haur hezkuntzako haurren kompetentziak garatzeko beharrezkoa duten guztiaz jantzita egon behar gara nahi dugun aldaketa posible izateko eta irakasleariak honen inguruan hausnarketa egin behar du.

5 Helburuaren formulazioa (Hizkuntza komunikazioa)

- laz sortutako irakurketa planaren barruan dauden hainbat helburu lortzeko, proposatutako jarduerak planifikatu, hausnartu, aurrera eraman eta ebaluatu (inplementazioa).
- Ahozko Komunikazio gaitasuna lantzen jarraitu, ikasitako eta egindako lanaz baliatuz.

Hizkuntza giza garapenerako funtsezko osagaia da, bai alderdi indibidualean zein sozialean, Hizkuntza Komunikaziorako gaitasuna hizkuntza erabiltzeko trebetasuna baita. Gaitasun honen garapenak hizkuntzak erabileraren bidez ikastea eskatzen du, askotariko komunikazio egoera eta testuingurutan. Aurtengo ikasturtean, gaitasun honen 2 dimentsio hauen inguruan lan egingo dugu:

- Idatziaren ulermenerako “Irakurketa Plana” inplementatzen hasiko gara.
- Mintzamenaren dimentsioko ahozko diskurtsoetan arreta berezia jarriko dugu. Horretarako irratzaioa tresna bezala erabiltzen jarraituko dugu, besteak beste.

6 Helburuaren formulazioa (Kalitatea)

Ikastetxeak ikasturtean zehar egingo duen lanari soportea eskaini eta premien arabera prozesuak eta dokumentuak eguneratu.

“Kalitatea Kudeatzeko Sistema” proiektuak era sistematikoan esku hartzeko esparru bat eskaintzen du, ikastetxe bateko Hezkuntza - jardueraren eremu nagusiak hobetzeko.

Besteak beste, gizartearen aldeketetara egokitu eta Hezkuntza Komunitatearen asebetetzea helburu izanik.

7 Helburuaren formulazioa (Aniztasunaren trataera)

Aniztasunari erantzuna emateko ditugun giza-baliabideak erabili.

Kontuan hartuta gure geletan daukagun ratioa eta aniztasuna, ikasle guztiei kalitatezko arreta zuzena emateko daukagun baliabideekin ahalik eta etekin gehien ateratzen saiatuko gara. Horretarako maila bereko irakasleek indartzeak emango dituzte beste geletan.

8 Helburuaren formulazioa (IKT)

Curriculumeko edukiak garatzeko erabiltzen diren hainbat aplikazio eta programa berriren formakuntza jaso erabilpena sustatzeko.

Irakaskuntza -ikaskuntza prozesuan baliabide digitalak erabili behar direla garbi dago eta adinaz aurrera doaz heinean erabilpena nagusitzen joan behar du, XXI mendeko gizartera egokitzeko eta kompetentziak garatu ahal izateko.

Hau da, Aro berriari erantzunez, ikasleria digitalizazio alorrean formatzea, trebatzea eta euskarriak era egokian erabiltzea.

5. eta 6. mailako edukien barruan hainbat aplikazioen erabilera bultzatzen da eta premia ikusten da hau jorratzea (bai irakasle baita ikasleak ere): EXCEL, DRAW IO, DRIVE, ...

Bestalde, beste maila guztietan, orain arte egindako lanaren bilketa egitea eta zer nolako edukiak landuko diren adostea eta dokumentu batean jasotzea.

9 Helburuaren formulazioa (Euskara)

Euskara eta euskal kultura “bizi nahia” izan dadin gogotsu lanean jarraitu.

Nahiz eta gure ikastetxeko ia ikasle guztien ama-hizkuntza euskara izan, geroz eta gehiago entzuten dugu erdera. Beraz, gogotsu jarraitu behar dugu gure hizkuntza eta kultura bultzatzen. Horretarako ezin dugu etsi eta aurrera jarraitu behar dugu, gu eredu izanik, eguneroko lanean.

10 Helburuaren formulazioa (Agenda 21)

Aurreko urtean hondakinen murrizketaren inguruan ibili ondoren, eta jasangarritasunari beste urrats bat eman nahian, aurtan **ekoizpen eta kontsumo arduratsuari** helduko diogu.

Gure ikastolan hondakinak murrizteko hartu ahal diren neurriak hartu eta kontsumo arduratsuen inguruan sentsibilizatu.

Kontsumitzen dugunaren jatorriaz hausnartu eta kontsumorako aukera berriak Aztertu.

10 Helburuaren formulazioa (Ebaluazio doagnostikoa)

Kanpoko ebaluazio diagnosiaren datuak jasotzen ditugunean hobekuntza plana prestatuko dugu.

Ikastetxeen eta Euskal Hezkuntza Sistema hobetzeko balio duen ebaluazio prozesua da; ikasleak oinarrizko kompetentziak noraino garatu dituzten baloratzen du.

Helburu bikoitza du: alde batetik, eskolak bizitzarako zein mailataraino prestatzen duen baloratzea eta herritar bezala duten eginkizuna betetzeko ikasleak zein puntutaraino dauden prestatu ezagutzea; eta bestetik, ikastetxeei irakaslan hobetzen laguntzea eta administrazioari hezkuntza-politika bideratzeko informazio baliagarria eskaintzea.

2.2 Jardueren planifikazioa

1. Helburua

P.E.G. (PRESTAKUNTZA EKIMEN GLOBALA)

- Matematikarako eta zientziarako konpetenziaren inguruan klaustroa formatu eta ikasitakoa geletan inplementatu.
- Hizkuntzen trataera integratua eta integrala landu eta horretarako Berritzeguneak eskaintzen duen formazioan parte hartu.
- Gaur egun hizkuntzaren inguruan dauzkagun erabaki eta irizpideak kontuan izanda Hizkuntza proiektua osatzen joan.

Jarduerak	Arduraduna- agenteak	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
<p>Matematika eta zientziako moduloak lantzeko Berritzeguneak antolatutako formazio saioetan parte hartzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Matematika: <ol style="list-style-type: none"> Marko teorikoa (Jexux mari Goñi Marcos Marrero). Matematika manipulatioa Problemen ebazpena - Zientzia: Berritzegunek eskeinitako hiru formazio saio. 	Irakasle guztiak Laguntza Taldea Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> - Matematika: 1. hiru hilean - Zientzia: 2. Hiruhiletik aurrera. 	<p>Heziberri Dekretua Programazioak Formatzaileak: Jexux Mari Goñi (ikaslekar), Marcos Marrero eta Berritzeguneko aholkulariak</p>	<p>Formazio saioak jaso dira Formazioan jasotakoa geletan inplementatu da. Ikasturtean zehar</p>
Berritzeguneak eskeintzen dituen hizkuntzen trataera integratuaren eta integralaren inguruko moduluan parte hartzea	Irakasleak Laguntza taldea Zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Heziberri	Formazio saioetan parte hartu dugu
Berritzegunek eskeinitako formakuntzetan jasotako informazioarekin hizkuntza proiektua gauzatzeko erabakiak hartzea.	Hizkuntza mintegia Zuzendaritza Irakasleak	Ikasturtean zehar	Berritzeguneko aholkulariek mintegietan emandako materiala EKI, Txanela	Hizkuntza proiektua egiten hasi da. Ekainean

2. Helburua

Helburuaren formulazioa (Ebaluazioa)

Ikasleek ebaluazio objektiborako duten eskubidea bermatzeko eta ebaluazio hezigarri baten alde hainbat prozedura, formakuntza eta behar diren pausoak ematea.

Jarduerak	Arduraduna-agenteak	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Berritzegunek eskeintzen duen mintegian parte hartu eta gure klaustroan zabaltzea programazioetan txertatzeko.	Berritzegunea Andy Marodo	Ikasturtean zehar	Formatzaileek eskeinitako materialak	Mintegietan parte hartu da eta klaustroan informazioa zabaldu da. Programazioetan txertatu da.
Ebaluazioaren inguruan ditugun dokumentuak eta akordioak errebisatu eta gaurkotu (ebaluazio tresnak, informeak, ebaluazio mota desberdinak, ...)	Ebaluazio mintegia	Asteartero	Berritzeguneko materiala Aurreko urteetan erbili diren dokumentu etabar.	Dokumentuak errebisatu eta gaurkotu dira.
Haur bakoitzaren inguruko ikaste-prozesua jasotzeko baliagarria den txantilo bat sortzea eta honen funtzionaltasuna bermatzea.	Zuzendaritza taldea klaustroa	Urtean zehar	Txantilo bateratuak	Ikasturte bukaeran irakasle guztiei txantiloien funtzionaltasunaren inguruko balorazio orri bat pasatuko zaie.
Irteera profila zehaztea	Zuzendaritza taldea Irakasleria	Apirilean	Dekretua Port it-ak	Ikasleen irteera profila zehaztu eta dokumentua sortu da. Ekainean

3. Helburua

Elkarbizitza-Hezkidetzaz

Ikastetxeak ikaskuntzarako eta garapen pertsonal eta sozialerako gune bilakatzea jakintzaren eta eskola-komunitateko kide guztien konpromezu partekatu etengabearen bidez, bizikidetzaz positiboa eta ustezko jazarpen egoeren aurrean zero tolerantzia duen inguruseguru bat eraikiko duena.

Jarduerak	Arduraduna-agente	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Hezkidetzaz eta genero berdintasuna dela eta ikasleentzat eta gurasoentzat sentsibilizazio eta formakuntza saioak jasoz.	Berdinu eskolak Guraso elkarteaz	Ikasturteaz zehar (zehaztu gabe)	Berdinu eskolak eskainitako aholkularitza eta materialaz	Ikasle zein gurasoentzat formakuntza saioak jasoz dira. Zehaztu gabe
Ikastetxean Elkarbizitzarako eta Hezkidetzaz oinarritutako jarduerak sistematizatu: Azaroak 25(Tratu onen eguna), martxoak 8 (emakumearen eguna) , maiatzak 17 (LGTBI eguna)	Elkarbizitza taldeaz Zuzendaritza Elkarbizitzako ikasleen ordezkariak	Aipatutako datak	Material anitza	Ekitaldiak egiterakoan Balorazioetan
NAHIKO programan parte hartzea eta geletan lantzea (2. Mailan)	NAHIKO programako arduradunak 2. mailako irakasleaz	4 saio ikasturteaz zehar	NAHIKO programak eskainitakoaz	Ekainean
Bizikasi ekimenaren inguruan antolatzen dituzten formakuntzetan eta mintegietan parte hartu.	Berritzeguneaz BAT taldeaz Elkarbizitza taldeaz	Azaroan (2 saio) Ikasturteaz zehar hilean behin asteartean	Berritzegunek eskeintzen dituen baliabideak	Berritzegunek antolatu dituen formakuntza saio eta mintegietan parte hartu da. Ikasturte bukaeran
Bizikidetzaz behatokia finkatu.	Guraso Ikasle Jangelako eta autobuseko arduradun Zuzendaritza taldeaz	Ikasturteaz zehar	Eskolak eskeinitako guneak; momentuan erabakitzen denaz	Ikasturteaz egiten diren bileren balorazioak jasoz dira. Partaideek egin dituzten aportazioak kontuan izan dira. Ikasturteaz zehar, bildu eta gero.
2. zikloan tutoretza plana osatu 0 jazarpena txertatuz.	Berritzeguneaz, BAT taldeaz eta klaustroaz	Urria- ekaina	Heziberri, Kurtso hasierako ebazpena eta protokoloaz	Emandako jardueraz desberdinak tutoretza planean txertatu dira. Otsailean eta ekainean
Gurasoei BAT taldearen aurkezpena, Bizikasi ekimena azaldu eta bullyingaren inguruko sentsibilizazio Saioa egin ikasturte hasierako bileretan.	Zuzendaritza Taldeaz (ikasketa buruaz) Tutoreak BAT taldeaz	Urria	Ebazpena eta protokoloaz	Gurasoei bizikasi emkimenaren informazioa helarazi zaie ikasturte hasierako bileretan. Bilera bukaeran gurasoei balorazio orria pasako zaie eta idatzi dutena kontutan hartuko da hobekuntzak egiteko. Iraila-Urria

4. Helburua

Helburuaren formulazioa (Bikaintasuneruntz)

XXI. mendeko hurrei eta gizarteari erantzuna eman ahal izateko, irakasleak/hezitzaileak askotariko estrategiaz eta metodologiaz jantzita egotea; horretarako behar den moduan formazioa jasotzea.

Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Berritzeguneko aholkulariek antolatzen dituzten mintegi, formazio, hitzaldi eta abarretan parte hartuko dugu.	Berritzeguneko aholkulariak eta klaustroa	Ikasturte osoan zehar 20 ordu+-	Berritzegunea	Hainbat formazioetan parte hartu dugu.
Nere Indak ,gai honetan adituak, gaiarekiko sarrera bat ematea eta lan ildoak finkatzen laguntzea.	Zuzendaritza eta H.H. ko proiektuko koordinatzailea.	6 ordu	Nere Inda berritzeguneko aholkularia.	Formazioa burutu da.
Gai honetan aditua den EHUko persona bat (Ane Ablanedo) etortzea eta gu formatzea hiru saioetan zehar. Irakasle honek gurasoentzat ere hitzaldi bat emango du.	Zuzendaritza eta H.H. ko proiektuko koordinatzailea.	6 ordu	Ane Ablanedo EHUko irakaslea	Formazioa burutu da. Hitzaldia eman da.
Haur hezkuntzako irakasle batek Hik Hasiko formakuntzan parte hartuko du eta ikastaro horretan jasotzen duena gainontzeko irakasleei partekatuko die. Ikastaro hau bi urtekoa izango denez, datozen bi ikasturteetan honetan jardungo gara.	Simone Begiristain klaustrokidea	118 ordu 1. Ikasturtean		Irakasleak formazioa jaso du.
Espazioak eraldatzeko arlo guztietako materiala (irakurketa-idazketa, matematika, material manipulatioa, sensoriala, digitala edo ez digitala,... sortuko dugu hartutako formakuntzetan oinarrituta.	H.H. eta L.Z ko irakasleak. Zuzendaritza taldea	Ikasturtean zehar	Askotariko materiala.	Materiala sortzen hasi gara.
Astelehenetako ordu osagarriak eta behar adina osagarri erabiliko ditugu. Hileroko planifikazioan zehaztuta izango dugu.		40 ordu +		Planifikatutakoa bete da.

5. Helburua

HIZKUNTZA - KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA GARATU

- laz sortutako irakurketa planaren barruan dauden hainbat helburu lortzeko, proposatutako jarduerak planifikatu, hausnartu, aurrera eraman eta ebaluatu (inplementazioa).
- Ahozko Komunikazio gaitasuna lantzen jarraitu, ikasitako eta egindako lanaz baliatuz.

Jarduerak	Arduraduna-agenteak	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
laz sortutako irratsaioekin jarraitzea, berrikuntzak gehituz.	Hizkuntza mintegia	Astero	Sasoian sasoiko baliabideak erabili (kultur-gidak, astekariak...)	Proposatutako jarduera bete da.
“Bularretik mintzora” programaren zehaztapenak dagokien irakasleei zabaldu eta egunerokotasunean erabiltzea, errutina bihurtuz.	H.H.eta L.H. 1.zikloko irakasleak	Egunero	Bularretik Mintzorako materiala	Errutina bihurtu da.
Berritzeguneak H.T.B. inguruan eskainiko duen mintegian parte hartzea.	Berritzegunea Hizkuntza mintegia	Hilero	Berritzegune	Mintegian parte hartu dugu.
<u>Irakurketa planaren inplementazioa:</u> IRAKURTZEN IKASTEA 1.helburua: <u>Ikastetxean irakurketa-prozesuaren ontogenesia eta kodea lantzea eta irakasleen arteko elkar-lana sustatzea.</u> <ul style="list-style-type: none"> • Ontogenesiaren faseak ezagutzea, jarduerak prestatzea eta egunerokotasunean erabiltzea. Aditu baten, Javi Azpitarteren, formazioa jasotzea. 	Berritzeguneko aholkularia Mintegia Irakaslegoa Zuzendaritza	Ikasturte hasieran: 5 formazio saio Ikasturte osoan	Javi Azpitarte Berritzeguneko aditua. Irakurketa planean agertzen diren baliabideak	Formazioa jaso da. Bertan ikasitakoa +dugun materialaz baliatuta egunerokotasunean konszienteki landu dugu.
2.helburua: <u>Ikasleen kontzientzia fonologikoa hobetzea.</u> <ul style="list-style-type: none"> • H.H. n kontzientzia fonologikoa lantzeko jarduerak U.D. txertatzea. • Haur hezkuntza eta L.Zikloko ikasleei kontzientzia fonologikoa ebaluatzeko frogak pasatzea :aurre-ebaluaketa (iraila-urria, 2.hiruhilabetean eta kurtso bukaeran). 	Tutoreak eta 1/3 egitera etorri den irakaslea.	Urtean zehar	Irakurketa planean dauden baliabideak.	U.D. koetan txertatu dira. Frogak pasatu dira.

<p>3.helburua: <u>Ikasle bakoitzaren Irakurtzen ikasteko prozesuan zein fasetan dagoen zehaztea eta jarraipena egitea. Horiek kontuan harturik neurri indartzaileak hartzea aniztasunari erantzutearen aldera</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasle bakoitza "irakurtzen ikasteko " prozesuan non dagoen jakiteko froga pasatzea (zein fasetan dagoen ikustea). (Ontogenesiko frogak). • Emaizten arabera neurri indartzaileak aplikatzea behar den materiala eskuratzeko. 	Tutoreak eta 1/3 egitera etorri den irakaslea.	Urtean zehar	Irakurketa planean dauden baliabideak.	Erregistratu da eta neurri indartzaileak hartu dira. Aurten egindako lana dossier batean jasota dago.
<p>IKASTEKO IRAKURRI 6. eta 7. Helburua: <u>Gure ikasleak irakurle konpetenteak izateko hainbat PROZESU ezagutzea, hausnartzea eta planifikatzea.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurketa lantzeko eta ulermena hobetzeko estrategiak eta baliabideak ezagutzea eta proposamenak adostea (momentu desberdinak proposatu, ACL, IK-KI ko teknikaren bat, ... 	Irakaslegoa	Urtean zehar	Irakurketa planean dauden baliabideak (Enseñar a leer, Leer y escribir, ...)	Formazioa jaso da. Proposamenak adostu dira.
<p>9. <u>Helburua: Gelako kontsulta-materiala eta liburuak egokitzea eta gaurkotzea, baliabide digitalak barne.</u></p>	Klaustroko irakasle guztiak	Ikasturte hasieran eta urtean zehar	Ikastetxean daukagun materiala eta erosten duguna.	Inbentarioa egin da eta proposamenak kontuan hartuta gelak hornitu dira.
<p>IRAKURZALETASUNA 11. <u>Helburua. Ikastetxeko liburutegiko liburuak eta era guztietako baliabideak egokitzea eta gaurkotzea, web baliabideak kontuan hartuz</u></p>	Liburutegiko arduraduna.	Ikasturte hasieran eta urtean zehar	Liburutegian daukagun materiala eta erosten duguna.	Inbentarioa egin da eta proposamenak kontuan hartuta liburutegia hornitu da.
<p>13. Helburua: <u>Garapen emozional eta intelektual bultzatzea.</u> Tertulia literarioak egitea eta liburu baten ilustrazioetatik abiatuz istorio berriak sortu.</p>	Tutoreak eta liburutegiko arduraduna	Ikasturtean zehar	Liburuak	Iharduerak burutu dira.
<p>14.Helburua: <u>Hizkuntza garapenean eragitea eta kultura anitzak bereganatzea.</u> Kultura ezberdinetako tradiziozko literaturako produkzioetatik abiatuz ahozkoasuna landu: aho-korapiloak, bertsoak, olerkiak, atsotitzak, kantuek ... (Atxia motxia , Euskal kulturaren inguruko sasoian sasoikoak ...</p>	liburutegiko arduraduna eta tutoreak	Ikasturtean zehar	EKI, liburutegia, txanela, bularretik mintzora...	Iharduerak burutu dira.

<p>15.Helburua: <u>Liburutegiko saioetan egiten diren jardueren jarraipena egitea, sistematizatzeta eta irakurketa aukerak zabaltzea.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxe barruan irakurketa bultzatzeko txokoak sortu. Pasilloan , jolastokian, eskola liburutegian, gelan ... irakurri ahal izateko txokoak. • Irakurketarako momentua sistematizatzeta aldera irakurketaren ordua zehaztea: egunero irakurketarako tarte (bakarka, ahots goran, taldean , irakasleak irakurrita) 	<p>Irakaslegoa, liburutegiko arduraduna eta jantokiko monitoreak.</p>	<p>Urtean zehar.</p>	<p>Espazioak eta ipuin polittak.</p>	<p>Txokoak sortu dira Momentuak zehaztu dira.</p>
<p>16.Helburua: <u>Irakurzaletasuna ikasleengan suspertzea.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Idazleak ikastetxera programa (Idazleen elkarte)Idazleak eta ilustratzaileak ikastetxera gonbidatu:Tramankuluak ikastetxeetara programa(Udaleko euskara zerbitzua) • Ikasleei galdetegia (gogokoen dituzten gaiak, generoak, idazleak ...) eta hauen emaitzak kontuan harturik, hausnarketa egitea eta behar diren neurriak hartzea. • Motxila ibiltaria: Liburuak etxera! Bularretik mintzora. 	<p>Idazleak, ilustratzaileak, irakaslegoa, liburutegiko arduraduna.</p>	<p>Urtean zehar</p>	<p>Giza baliabideak Galdetegia Eibarko Liburutegia</p>	<p>Jarduerak burutu dira. Ikasleei galdetegia pasatu zaie eta ondorioak atera dira_</p>
<p>17.Helburua: <u>Familien inplikazioa bultzatzea.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Aitabitxiak eta amabitxiak: familiakoak, nagusiagoak ... gelara gonbidatzea ipuinak kontatzera. • Familiei gomendioak eta proposamen zerrendak zabaldu. • Ikastetxean adostutako dekalogoia eta familientzat lagungarriak izan daitezkeen hainbat aholkuen zerrenda helaraztea. 	<p>Hizkuntza Mintegia Ikastolako eta Eibarko Liburutegiko arduradunak. Familiak</p>	<p>Urtean zehar</p>	<p>Giza baliabideak Ikastolan adostutako irakurketarekiko dekalogoia. Liburutegiko aholkuak.</p>	<p>Familiek parte hartu dute. Materiala helarazi zaie.</p>

6. Helburua

KALITATEA

Ikastetxeak ikasturtean zehar egingo duen lanari soportea eskaini eta premien arabera prozesuak eta dokumentuak eguneratu.

Jarduerak	Arduraduna-agenteak	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Irakase eta tutore koadernoan erabilera indartzea eta sistematizatzea; irakasle berriei lagundu eta tutorizatu bete dezaten.	Mailako erreferenteak Kalitate taldea	Urtean zehar	Irakasle eta tutore koadernoak	Koadernoan errebisioak urtean zehar.
Aurreraka Autodiagnostikoan identifikatutako indarguneak mantentzea eta hobetu beharrerko eremuak lantzea.	Kalitate Taldea Zuzendaritza	Urtean zehar	Prozesuak eta bertan dauden dokumentuak	Hainbat prozesu berri dira.
Plan Estrategikoa berritzeko prozedura zehaztea eta duguna berritzea.	Kalitatea Hezkuntzan Sarea	Urtean zehar	Ikas Komunitatearen aportazioak	Plan Estrategiko berria eratu da.

7. Helburua

ANIZTASUN TRATAERA

H.P.B ikasleen familiekin zer prozedura jarraituko dugun erabakitzea eta dokumentu baten jasotzea.

Jarduerak	Arduraduna-agenteak	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Familia eta ikasleekin izango dugun komunikazioa zehaztea.	Zuzendaritza Aholkularia Laguntza taldea	Ikasturtean zehar	Berritzegunea	Dokumentua sortu da

8. Helburua

IKT
Curriculumeko edukiak garatzeko erabiltzen diren hainbat aplikazio eta programa berriren formakuntza jaso erabilpena sustatzeko.

Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Konpetentzia digitalean Lehen Hezkuntzako ikasleen irteera profila zehaztu eta mailakatu	IKT taldea	Kurtsoan zehar astelehenetan saio bat	Programazioak Heziberri Berritzegune	Konpetentzia digitalean Lehen hezkuntzako ikasleen profila zehaztu da. Otsailean eta ekainean
Bai irakasle baita ikasleei ere gelarako erabilgarriak diren baliabide digitalen inguruko formazioa eskeini (Excel, Drawio, drive, audacity,...)	IKT arduradunak eta irakaslegoa	Kurtsoan zehar	Programak eta tresneria	- Hainbat aplikazio eta programa erabili dira. Otsailean eta ekainean
Teknologia berrien erabileraren arriskuaz jabetzeko ikasleei materiala eskeintzea eta hausnarketa egitea.	IKT taldea, irakaslegoa, gurasoak, ...	Saio batzuetan	Monografikoa, liburutegian	Ikasleen aldetik teknologia berrien erabilera egokia egiten da. Ikasleen jarrerak.
Irratsaioa eta bestelako jarduerak burutzeko Haur eta Lehen hezkuntzan beharrezkoak diren baliabideak eskeini.	IKT taldea, irakaslegoa, zuzendaritza	Kurtsoan zehar	Tresneria, Programak, Baliabide pertsonalak	- Irratsaioa martxan jarri da. Jarduera desberdinak egin ahala

9. Helburua

EUSKARA
Euskara eta euskal kultura “bizi nahia” izan dadin gogotsu lanean jarraitu.

Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Langileon arteko euskararen erabilera areagotu eta animatu. “Sensibilizazio tailerra” “Jira-buelta” programan parte hartu. H.H. “Ahotsak” erabiliz jolasordua antolatu.	Udal Euskara zerbitzuak bideratutako sensibilizazio Saioa. Euskaraz Bizi taldea, Jantokiko arduraduna	2 orduko 2 saio Kurtso osoa	Motibazio bilerak (zentro bilerak/ jantoki-autobus arduradunekin)	Ikasturte bukaeran.

	“Astixako” langileak			
Ikasleen EUBIZI taldearekin bildu eta ekintzak adostu, antolatu eta gauzatu.	Euskaraz Bizi taldea eta Zuzendaritza	Hilabetean behin	EUBIZI taldea	Ikasturte bukaeran
Adin ezberdinetakoen arteko euskera trasmisioa bultzatu.	Tutoreak	Lanak prestatuta daudenean	powerrak, ipuinak, bertso saioak eta jolasak	Ea arrakasta izan duten: Ikasturte bukaeran
Euskararen erabilera bultzatuko duten ekintzak antolatu (kanpainak) etxeetara informazioa zabaldu (etxeetan kanpainaren jarraipena egin dezaten) eta kanpaina bakoitzaren bukaeran aretoko ekintza aurrera eramán. Opor osteko “Gaur be euskaraz” eguna eta “Argitxoren astea” antolatu.	Euskaraz Bizi taldea eta Zuzendaritza	Hiruhilabetero aste bete 2. eta 3. hiruhilabetean	Etxeetara bidali emaila informazio egiten ari garen berri izan dezaten. Kanpaina materialak	Ikasturte bukaeran
Euskararen erabileraren neurketa egin.	Euskaraz Bizi taldea G.H. ko irakasleek	Hiruhilabetero		Ikasturte bukaeran
Kanpoko hainbat erakundeekin harremanak izan. (Udaleko Euskara Batzordea, "AKEBAI", Eibarko euskalgintza, Eta kitto...) -2.mailako ikasleekin proiektu bat.(AKE) -Garaian garaiko proposamenak jaso eta egokitzen joz gero, aurrera eramán. Euskararen eguna, Abenduaren 3, Gantxila.... -“Euskararen baloia” S.D.Elbarrek proposatutako programan parte hartzea: Jolas gidatuak zuzendu. Proposamenak egin eta materiala eskaini. (ikasle-ikasle).	Euskaraz Bizi taldea eta Zuzendaritza	Urtean zehar Urriak 14-20	Erakundeetan banatutako materiala	Ikasturte bukaeran
“Kirola Euskaraz bizi” antolatu ikasturte bukaeran gurasoei euskararen garrantziaz gogoraraziz.	Euskaraz Bizi taldea eta Zuzendaritza	Urtean zehar	Euskaraz Bizi taldea eta gurasoak	Ikasturte bukaeran
Ikastolako komunitatearen partaidetza eta inplikazioa sustatzeko taldea sortu (guraso elkarte, jantoki eta autobus zaintzaileak...)	Euskaraz Bizi taldea eta Zuzendaritza	Urtean zehar zehaztu gabe oraindik	Euskaraz Bizi taldea + Guraso+ bus eta jantoki langileak	Ikasturte bukaeran
Gurasoengana hurbiltzeko ahalegin bat egin euskara ikastaroetara apunta daitezten... -“Gurasoak eskolara” ekimena bultzatu -“Gurasoak berbetan” (guraso bileretan informazioa banatu) -Guraso lagun.	Guraso elkarteak	Ikasturte hasieran		

10. Helburua

A 21

Aurreko urtean hondakinen murrizketaren inguruan ibili ondoren, eta jasagarritasunari beste urrats bat eman nahian, aurten **ekoizpen eta kontsumo arduratsuari** helduko diogu.

Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Ingurmen Batzordea osatu; 2. mailatik hasita gela bakoitzeko ordezkari batez osatua izango dena.	EA 21taldea	Urrian	EA21eko koadernoak, materiala eta lekua.	Bileretara etortzea eta jarrera akitboa izatea.
Eskolara taperretan eta berrerabili daitezkeen poltsetan ekartzen diren hamarretakoak etxera nolda heldu diren aztertu eta hausnartu.	EA 21 taldea, ikasleak Zuzendaritza, irakasleak eta familiak	Ikasturtean zehar	Ikasle bakoitzak etxetik dakarrena	Irakasleen eta ikasleen behaketa Ikasturte osoan zehar
EA21eko arduradunek egindako plangintzaren arabera, 3. mailatik gora zakarren kudeaketa egitea zaborra bereizita jasoz	EA 21 taldea, asteko gela arduraduna eta bere tutorea	Ikasturtean zehar	Dagokien astean eskularruak, poltsak eta denbora tarte bat.	Astero talde arduraduna Ikasturte osoan zehar
Sentsibilizazio kanpaina: "Kontsumo arduratsua" gaiaren inguruan informazioa ikasle eta irakasleei zabaltzea	EA 21 taldea, Zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Fitxak, e-mailak, bideoak, irakurgaiak, ipuinak, ... Aretoko ekintzak	Irakasleria materiala jasota izan. 1.eta 2. hiruhilabeteetan
Debegesako arduradunekin bilerak egitea eskolarteko foro eta udal foroak prestatzeko. Eramango diren proposamenak lantzea eta adostea.	EA 21 taldea	Kurtsoan zehar	Ceida, Debegesa materiala	Bileretan partehartzea Ikasturte bukaeran.

11. Helburua

Ebaluazio diagnostikoa

Kanpoko ebaluazio diagnosiaren datuak jasotzen ditugunean hobekuntza plana prestatuko dugu.

Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
Emaitzak jasotakoan hobekuntza planerako ekintzak planifikatuko ditugu.	Irakaslegoa Zuzendaritza taldea	Ikasturtean zehar	Egoerak eskatzen dituen baliabideak eskeiniko dira.	Hobekuntza proposamenak egin dira. Planifikatutakoa ikasleekin landu da.

3. IRAKASKUNTZA -JARDUEREN PROGRAMA

3.1 Ohiko irakaskuntza -jarduerak

3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak

3.1.1.1. Egutegia

* H.U.I.S.*
DATA: 2019/07/04



ORR.: 1
ERREF.: pw49008

2019-2020KO ZENTROAREN EGUTEGIA

Maila: LEHEN HEZKU

Ikastetxeko kodea: 012327
Ikastetxearen izena: CEIP J.A. MOGEL IKASTOLA HLHI
Kurtsua: 2019-2020
Udalerria: Eibar
Lurraldea: Gipuzkoa
Ikusk. Zonaldea: Eibar: Zona 3

IRAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

URRIA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

URTARRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

OTSAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	

MARTXOA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

APIRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

MAIATZA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

EKAINA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

EGUNA	GOIZEZ	ARRATSALDEZ
AL.	08:30-12:00	13:30-15:30
AS.	08:30-12:00	13:30-15:30
AZ.	08:30-12:00	13:30-15:30
OG.	08:30-12:00	13:30-15:30
OR.	08:30-12:00	13:30-15:30
TRI	08:30-12:30	
BER	08:30-12:30	

Guztira Eskola-egunak: 178
Guztira Klase-egunak: 178
Eskola-orduak guztira: 956:30

Lektiboa	15	Asteburua	15	Jardunaldi trinkoa	15	Jardunaldi berezia	15
Jaieguna	15	Klase gabeko lektiboa	15	Oporaldiak	15	Zaintzari eguna	15
Herri jaia	15	Inhauteria	15	Zubia	15	Aurkezpena	15

3.1.1.2. Ikasleen ordutegia

HAUR HEZKUNTZA (ARGATXA ETA SANSABURU)

Goizez: 09:30 etatik 12:30 etara

Arratsaldez: 14:30 etatik 16:30etara

LEHEN HEZKUNTZA (ITURBURU)

- 1. zikloa: goizez: 09:30 etatik 13:00etara
arratsaldez: 14:30 etatik 16:30 etara
- 2. zikloa: goizez: 09:00 etatik 12:30 etara
arratsaldez: 14:00 etatik 16:00 etara
- 3. zikloa: goizez: 08:30 etatik 12:00etara
arratsaldez: 13:30 etatik 15:30 etara

Gure ikastolan, Lehen Hezkuntzako ikasleek 5 ordu eta erdi lektiba dituzte egunean zehar.

3.1.1.3. Ebaluazioen egutegia

Haur hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan 3 ebaluazio saio izango ditugu. Ikasleen ebaluazio prozesua horrela eramango dugu:

LEHENENGO HIRUHILABETEA

1.- EBALUAZIO SAIOAK/BILERAK

Urriaren 1ean Tutore+Espezifikoen koordinaketa.

Azaroaren 25etik-abenduaren 4ra

2.- INFORMEETAKO ESALDIAK PREST, ESPEZIFIKO ZEIN TUTORE.

Abenduaren 2a

3.- PT-ak TUTOREAREKIN INFORMEAK ADOSTU

Abenduaren 11a

4.- ESPEZIFIKOEN PRESTATUTAKO ESALDIEN ETA NOTEN TAULAK,

TUTOREARI PASATU

Abenduaren 11a

5.- INFORMEAK BANATU

Abenduaren 20an

NOIZ ETA NORTZUK, KONBOKATORIA TAULAN, ASTE BAT LEHENAGO

BIGARREN HIRUHILABETEA

1.- EBALUAZIO SAIOAK/BILERAK

Otsailaren Otsailaren 25etik martxoaren 7ra

2.- INFORMEETAKO ESALDIAK PREST, ESPEZIFIKO ZEIN TUTORE.

Martxoaren 13a

3.- PT-ak eta Laguntza irakasleek TUTOREAREKIN INFORMEAK ADOSTU

Martxoaren 21a

4.- ESPEZIFIKOEK PRESTATUTAKO ESALDIEN ETA NOTEN TAULAK, TUTOREARI PASATU

Martxoaren 29a

5.- INFORMEAK BANATU

Martxoaren 29a

NOIZ ETA NORTZUK, KONBOKATORIA TAULAN, ASTE BAT LEHENAGO

HIRUGARRENGO HIRUHILABETEA

1.- EBALUAZIO SAIOAK/BILERAK

Maiatzaren 27tik ekainaren 7ra

2.- INFORMEETAKO ESALDIAK PREST, ESPEZIFIKO ZEIN TUTORE.

Ekainaren 6a

3.- PT-ak TUTOREAREKIN INFORMEAK ADOSTU

Ekainaren 13a

4.- ESPEZIFIKOEK PRESTATUTAKO ESALDIEN ETA NOTEN TAULAK, TUTOREARI PASATU

Ekainaren 13a

6.- INFORMEAK BANATU

Ekainaren 19a

NOIZ ETA NORTZUK, KONBOKATORIA TAULAN, ASTE BAT LEHENAGO

HAUR HEZKUNTZAN

- **HARREMANAK GURASOEKIN**

Azaroan eta maiatzean

- **EBALUAZIO SAIOAK**

Urtarrilaren 21etik-31ra

Maiatzaren 22-23 eta ekainaren 10etik 13ra

- **INFORMEAK**

Otsailaren 15ean : 3, 4 eta 5 urtekoei

Ekainak 21ean, guztiei.

3.1.1.4. Irakaslegoaren eginbeharren esleipenerako irizpideak (Informazio gehiago J.A.Mogel-eko AJAn)

Ikasle taldearen irakasleek funtzio hauek izango dituzte:

